

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* Aldizkariaren zuzendaria

Zarata gutxiarekin, baina urrats ziurrekin, *Uztaro* aldizkaria berrogeita hamargarren alera heldu denean, ospakizun gisa zenbaki berezi bat ideiatu ordez, bere betiko martxan aitzina jo dugu. Giza eta gizarte-zientzien alorrean gure egunetan euskaraz egiten den ikerketa-lan isil sakonaren adierazle izatea baitu atsegintasun lehena. Hala ere, *Uztaro* kideei dei bat egin nahi diegu, hurrengo berrogeita hamar aleak hasteko unean, gogoeta ireki baten bidez, elkarrekin indarberritzeko neurriak landuz sendotzen ahalegin gaitezen. Eta zer eskaintzen digu *Uztaro* 50 zenbakiak?

*Praktikak Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioaren barnean* lanak, enpresa-ikasketen barnean egiten diren praktiken ikuspuntutik, egungo unibertsitate-sistemek Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioan barneratzean izango dituzten egokitzapen-aldaketak nabarmentzen ditu. Gogora dezagun ikastegiek kudeaketa administratiboa eta titulu akademikoak lortzeko unibertsitate-irakaskuntza antolatzea dutela ardura, eta ikasketa-planak unibertsitate batek koordinatutako irakaskuntzen multzoak izanik, horiek gainditzeak titulu ofizialak eskuratzeko eskubidea dakarrela. Hori horrela adieraziz gero, eskuartean dugun ikerketa EHU/UPVko Enpresa Zientzien Diplomatura titulua lortzeko egin beharreko ikasketen planetan murgiltzen da. Adibide gisa, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan 2003/04 ikasturtetik aurrera eskainiko den ikasketa-plan berriaren egitura eskaintzen du.

Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioa sortzeko egin diren bilera eta ahaleginen berri laburbildua ematera igarotzen da. Gogoratzen zaizkigu, besteak beste, Sorbonako Adierazpena (Paris, 1998), Boloniako Adierazpena (Bolonia, 1999), Pragako Adierazpena (Praga, 2001) eta Berlingo Konferentzia (Berlin, 2003). Hurrengo konferentzia 2005eko maiatzean Bergen-en (Norvegia) ospatuko dela ere azpimarratzen da. Bestalde, Espainiar Estatuan hezkuntza-sistema Europako neurrietara egokitzeko harturiko neurri garrantzitsuenak non aurki ditzakegun seinalatzen da.

Espainiar unibertsitate-sistemaren integrazioa Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioan zehatzago aztertzean, hau azpimarratzen da: «kreditu berrien ezarpen-sistemak espainiar unibertsitateetan aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu, non oraindik indarrean dagoen eskola-orduetan oinarritutako kreditu-sistema erabiltzen baita». Diferentzia honetan datza: orain arteko sisteman hezkuntza irakaslearen lanaren arabera neurtzen da; sistema berrian, aldiz, ikaslearen lana neurtzen duten kredituak, ikasketara eta ongi zehaztuta dauden helburu batzuen lorpena zuzenduta daude.

Hemendik gaur egungo praktiken benetako testuingurua ikertzera igarotzen da. Unibertsitate-ikasketei lotutako arazoaren artean, larriena, helburutzat ezarritako ikasleak gizartean bizitzeko prestatzea eta gizarteko beharrak asetzea lortzeko zailtasuna da. Bigarren helburu hori betetzeko Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak enpresekin harremanetan izateko bulego bat zabaltzen du

(Bidelan) eta horren xedea ikasleei lan-merkatuan sartzeko erraztasunak ematea da. Praktikak kudeatzeko unean tutoretza egokiak edukitzeak dakarren arazoan sakontzen da. Borondatezko praktiken kontzeptua eta edukia jorratzen dira. Esaten zaigu etorkizunean istripuen eta erantzukizun zibileko aseguruak kontuan hartu beharko direla eta, gainera, hizkuntzen ezagupenak geroz eta garrantzi handiago izango duela praktiken prozesu osoan zehar.

*Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teoriotik begirada bat) lanak, euskara aberatsa eta kalitatezkoa eraiki gura badugu gaur egun duen kortse estuegia askatu behar zaiola adierazten du, aldaeretan ostendurik dituen aberastasunak biltzeko eta forma estandarrera ekartzeko. Gaur egun, estandar eta dialektoen artean ageri diren bateratze-joerak europar eremuan sorturiko marko teorikoak erabiliz aztertzen dira. Bateratze-prozesu motak bereizten dira horretarako. Dialekto eta estandarraren arteko bateratzea estandarraren agindura betetzen denean monozentrikoa litzateke. Bateratze-prozesuak dialekto eta estandarraren arteko dinamikatik independenteak direnean, bateratze dialektala estandar erregionalaren inguruan gerta daiteke bateratze dialektal polizentrikoa gauzatu. Bateratze-prozeduren tipologia bat ere marrazten da. Bateratze osoa eta guztiz burutu gabekoa; konbergentzia bertikala eta horizontala; aldaera endogenoa ('naturala') eta ukipenaren eraginez egindakoaren arteko lotura; konbergentzia indartsua eta ahula; dialekto eta estandarraren arteko aldaera berrien sorrera, aurrez aurre sakontzen dira. Bateratze-joerak euskararen nolakoak diren deskribatzera ailegatzen da ondorioz. Arazo terminologikoak ditugula adierazten zaigu: «gurean erabiltzen diren terminoak etxean ibiltzeko egokiak izan daitezkeen arren, kanpokoak ere irakurtzeko beharra dugunontzako ere egokiak izan daitezkeen aldatzeko batzuk egin beharrean gaude». Aipatzen zaigu ere bateratzearen abiadura eta eredia: «ingurune batean bizi den jendeak hitz egitean sortzen duena da bertako hizkera. Hizkera hori ez da monolitikoa». Gisa honetan ikerketa-lurra prestatu, euskara batua eta estandarraren artean gertatzen ari den bien arteko harremanaren inguruan zenbait auzi plazaratzen dira: zeinek zeinengan eragiten duen, joera bateratzaileak ba ote dagoen, bizia ala motela bizi dugun gaur egun gure herrietan eta euskararen lurralde guztietan joera bera eta indar berarekin ematen ari ote den. Itaun horien erantzunak bilatzeko asmoz, hiru adin desberdinetako jendearen hizkerak aztertu ditu egileak.*

Inkesta, galdesorta itxia,aldi berean Gipuzkoan (Goiherrin) eta Bizkaian (Diman) pasatu zuen. Gipuzkoan fonologia, morfologia eta lexikoa kontuan hartu dira eta , Diman, fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa. Diferentziak esanguratsuak dira: helduek herriko hizkeren ezaugarriak hobeto gordetzen dituzte Diman Goiherrin baino. Baina gazteen artean alderantziz gertatzen da. Bizkaian gazteen hizkera eskolaz kanpoko loturarik gabe gelditzen ari dela esaten zaigu: urte gutxi barru euskara bakarra izango dugula, alegia. Azken berbak aipagarri egiten dira ere: «gure euskara batua zabala egiten ez den bitartean, jendea hizkeretatik urruntzen joango da, euskararen aberastasuna galduz joango da».

*Euskara helduaroan ikasteko motibazioa: hainbat gogoeta lanak bigarren hizkuntzen eskurapenaren eta irakaskuntza/ikaskuntzaren alorrean motibazioak (hainbat kontzeptualizazio eta teoriatik begiratuta) duen eragina arrotzen du. Definizioaren inguruko eztabaidak gogora ekartzen dira. Ikertzeko lehenengo*

saioak Kanadan egin ziren 60ko hamarkadan Gizarte Psikologiaren eskutik. Gardner-ek eredu sozio-heziketazkoa sortu zuen. Askotan esplikatu behar izan du motibazio integratiboa eta noranzko integratiboa ez direla gauza bera. Noranzko integratiboa ikasteko arrazoiei dagokie eta motibazio integratiboa, berriz, konstruktua korapilotsua da. 1990eko hamarkada arte iraun zuen Gardner-en ereduak indarrean. Dörnuei-k eta Shearin-ek, 1994an, Motibazioaren Psikologia nabarmenduz teoria berritzaile bat abian jarri zuten. Geroztik ugari izan dira Motibazioaren Psikologian egin diren teoriak: itxaropena-balioen teoriak; autodeterminazioaren teoria; eta helburuen gaineko teoriak.

Geure inguruari dagokionez, euskara-ikasle helduen motibazioa aztertzeko lanak urriak badira ere, hainbat ahalegin aipatu beharrekoak egin dira. Horietariko hamar laburbiltzen dira eta batera gainbegiraturaz gero, hauxe ondorioztatzen da: 1) Metodologiari dagokionez, lan guztiak kuantitatiboak izan direla, eta galde-sortaren teknika erabiliz datuen analisi estatistikora menderatu direla. 2) Noranzko integratiboa eta instrumentala kontuan hartu direla. 3) Bost lanetan motibazioaren alorreko aldagaiekin batera lorpen-emaizak aztertu direla. 4) Motibazioaren intentsitatea eta motibazioaren noranzko integratiboa bistaratu direla lorpen-emaizekin lotura erakutsi duten aldagai bezala.

Bestalde, Euskal Herriko biztanleriaren jarrerak euskararekiko ikertu dituzten 27 lan aztertu ditu artikuluaeren autoreak. Jarreraren eta hizkuntz portaeren artean oso lotura ahula egoten dela erakusten da. Azken urteotako euskara ikasteko motibazioaren bilakaera ikustera igarotzen da. Datu erreala da beherakada egon dela. Arrazoiak? Langabezia-tasa eta ikasle-jendea; hizkuntz ereduaren eragina; ikasleen adina; aldaketa demografikoak; eta 273.491 ikasle ohi aztertu dira. Galdera batekin erantzuten da: zenbateraino esan daiteke gizartearen motibazioa euskara ikasteko ahuldu dela? Etorkizunari begira kontuan hartu beharko liriteke: etorkinentzako euskara-ikastaroak eta hirugarren adinekoentzakoak. Nola motibatu euskara-ikasle helduak? Baliabide adone-emaileak eta motibazio-estrategiak aipatzen dira. Ondorio gisa azpimarratzen dena hauxe da: gehiago direla motibazioaren noranzko integratiboak eraginda ikasten dutenak, noranzko instrumentalak eragindakoak baino.

*Kazetaritzari buruzko lehen doktore-tesia, euskaratua* lanaren bidez, izenburuak adierazten duenez, 1690ean Leipzig-eko Unibertsitatean, Tobias Peucer-ek *De relationibus novellis* izenaz defenditu zuen kazetaritzari buruzko lehen tesia euskarara itzulia eskaintzen zaigu. Javier Diez Nocik burutu duen euskaratze-lanak gure zorionik beroenak merezi ditu eta itzulpen horren lehen berria argitaratzeak harrotasunez bete du *Uztaro* aldizkaria. Izan ere, lehen itzulpena, 1990ean burutu zuen Josep Maria Casasús-ek katalanera, eta 1996an, Madrilgo Complutense Unibertsitatean, faksimilean latinezko jatorrizko bertsioarekin batera gaztelaniazko itzulpena argitaratu zen. Euskaratzekoan, autoreak, egindako aukera eta zailtasunen berri adierazten du. «Jatorrizkoarekin ahalik eta fidelena izaten» saiatu da. Bestalde, «zailtasun handiena, hainbat hitzen ordaina euskaratzeko orduan izan du». Izan ere, «batzuetan badirudi banakako informazioez ari dela, hau da, albiste, eta beste batzuetan, ordea, aldizkariez». Horrela bi adierazpen horiek bilduko lituzken hitz bezala 'errelazio' kontzeptua hautatu du. Justifikazioa ere eskaintzen digu: «zentzu horretan erabili baitzuen *errelazio* hitza —euskaraz ezagutzen

dugun lehenengoa— Baionako *Jaun Dauphin cenaren eritassouneco circonstancia berecien errelacionea* 1766ko idatziak».

*Drogak eta komunikabideak. Fenomenoaren eguneroko eszenifikazioa eta irudikapen soziala* lanak, komunikabideetan eguneroko informazioan adierazten denak «normalizazio-zereginen» duen eragina aztertzen du. Izan ere, jakina da, «komunikabideek errealitateak berak baino garrantzi handiagoa hartzen dutela, eta edukien irudikapenek edukiek berek baino pisu handiagoa daukatela». Salakuntza-konstatazio batetik abiatzen da gogoeta: «azken urteotan, kontsumoaren eta drogamenpekotasunaren arazoa planteatzeko moduan aurrerapen nabarmenak egin badira ere, komunikabideek ez dute funtsean aldatu gaia jorrazteko duten ikuspegia». Hiru aldi bereizten dira tratamenduari dagokionez: 70eko hamarkadaren bukaerakoa; 80ko hamarkadaren hasierakoa eta 90eko hamarkadakoa, «drogen kontsumoa besterik gabe debekatuz arazoa ez dela konpontzen egiaztatzearekin abian jarritakoa». Drogaren fenomenoan, tratamendu-paradigma has-tapeneko helburuetatik —eredu tradizionalen erabateko abstinentzia eta «zero tolerantzia»-ra bideratuta zegoena— kalteak murrizteko eta erabiltzaileak zerbitzu sozio-sanitarioetara erakartzeko helburuetara aldatu baita.

Edukien analisisira igaroaz, esan, ikerketa hau prentsa idatzian oinarritzen dela. Azterlanaren abiapuntua drogei buruz 2002ko urtarrilean, otsailean eta martxoan agertutako informazioen eta artikuluen multzoa izan baita. Erabilitako metodologia, analisi-parrila egitean oinarritu da. Ikerketa bederatzi egunkaritan oinarritu da, egunkari irakurrienetan eta euskal gizartean gehien banatzen direnetan, alegia. Landa-lanak 991 testu jaso zituen. Ondorioetan argi eta garbi dago, komunikabideek ematen duten irudian, ikuspegi errepresiboa eta eredu poliziala nagusitzen dela. Aipagarria da ere instituzioen diskurtsoak duen pisua. Sistematikoki hitzez hitz plazaratzen da. Hori da prentsak argitaratzen duen %80. Bestalde, drogen irudikapen soziala osatzen duten hamar elementu nagusi sailkaturik izendatzen dira. Azken hausnarketa gisa, «kalteak eta arriskuak murrizteko politikak ezin direla pertsonekin lan egitera mugatu» esaten zaigu. Horrek, esparru juridikoa, politikoa eta instituzionala aldatzea eskatzen du. Neurri zehatz gisa, polizia, epaitegi eta instituzioen ahotsa hitzez hitz ez hedatzeko eta indar txikiagoa dutenei, zuzeneko eragina jasotzen dutenei, hitza eman behar zaiela iradokitzen da. Azkenik, egilearen aburuz, komunikabideek testuingurua itzuli behar diote fenomenoari.

*Haur batek adierazitako egonezinaren lekukoek agertutako jokaera prosozialean eragiten duten aldagaiak* izenburuko lanak, jokaera prosozialaren inguruko eztabaidak argitzeko helburua du. Hasteko, jokaera prosoziala izena hartu duten ekimenak, hots, ongizatea areagotzera bideratutako jokaerak definitzeko orduan dauden zailtasunak aipatzen dira. Definizioan hainbat terminok duen tokia aztertirik, jokaera prosozialaren kontzeptuan 'positiboa' denari inplizituki edo esplizituki egiten zaion erreferentzia eta harreman interpersonala edo altruista azpimarratzen dira. Motibazioa ala jokaera terminoetan lehentasuna jartzeak ere ikerketalerro desberdinen irekitzea ekarri duela erakusten da. Azken finean, motibazio altruista duen edota ez duen edozein jokaera sozial positibo jokaera prosozialtzat onartzen da.

Jokaera prosoziala haurtzaroan nola ikusia izan den eta gaurko jakintzaren arabera aztertzea igarotzen da. Luzez, teoriko askoren iritziz, umeak ez ziren altruismoa erakusteko gai 5-7 urte bete arte. Hala ere, Murphy-k, 1937an, 3-4 urteko umeengan sinpatia eta haren jokaera adierazleak ikertu zituen. 1980ko hamarkadaz gero, 14 hilabetetik gorako haurrak elkarbanatzea eta kontsolatzea bezalako hainbat jokaera prosozial izateko gai direla adierazi digute. Umeak besteen ikuspegiak uste zena baino adin goiztiarragoan ezagutu eta interpretatzeko gai direla esan daiteke gaur egun.

Jokaera prosozialaren aldagai aurrealeak ere aztertzen dira. Lau talde handitan sailkatu ohi dira: banakoari dagozkion aldagaiak eta gizarteratze-aldagaiak, afektuzko aldagaiak, aldagai kognitiboak eta egoera-aldagaiak. Arazo metodologikoak aipatzea ere ez da hutsala. Izan ere, garapen moralaren ikerketan erabiltzen diren kontzeptuak ezin dira jokaera sinple eta behagarrien bidez neurtu, egoera konplexuen adierazleak baitira. Egoera horien ezaugarriak ikertzeko zeharkako frogak erabili behar izan dira.